



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

UDALEKU IREKIAK 2013 Haurrek izena emateko deialdia

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udarako Udal Gazteria eta Kirola Sailak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat (**2001 eta 2009** urteak bitartean –biak barne- jaiotako haurrak).

Bertan parte hartzen duten hurrei jolaserako, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi zaie, beren gozamenerako eta autonomia pertsonala finkatzeko.

Honen bitartez Udalekuetan parte hartu nahi duten haur eta gazteen gurasoei jakinarazten zaie **haurren izena emateko epea martxoak 11tik 23a bitartekoa** izango dela eta Mendiburu kalea 5ean kokaturik dagoen **Gazte Informazio Bulegora** jo beharko dutela.

Bestalde aurtengoan udalekuetako izen ematea hamabostaldika egiteko aukera luzatzen da hala nahi duten erabiltzaileei. Hortaz, hamabostaldi bat edo hilabete osorako izen ematea egin daiteke:

- Uztailak 1etik 12ra / - Uztailak 15etik 26ra / - Uztailak 1etik 26ra

Baldintza: Oiartzunen erroldatutako edo herriko ikastetxeetan matrikulatutako haurrak parte hartu ahal izango dute. (*Oiartzuarra ez bada, herriko ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko du*)

Kuota:

	Arrunta	Arrunta autobusarekin	Famili bereko 3 seme-alabak izena ematen badute %25eko deskontua	Famili bereko 3 seme-alabak izena ematen badute %25eko deskontua + autobusa
Hamabostaldi bat	35,00 €	48,00 €	26,25€ (ume bakoitzeko)	36,00 € (ume bakoitzeko)
Hilabete osoa	70,00 €	96,00 €	52,50€ (ume bakoitzeko)	72,00 € (ume bakoitzeko)

- Ordainketa LABORALEko honako kontu honetara eta **haurraren izen-abizenak adieraziz** egin behar da

3035 0126 60 1260044447 LABORALA

Ordainketa LABORALEan egin ondoren **martxoak 23a** baino lehen izen emate orria bete behar duzue **Gazte Informazio Bulegoan**. **Ez ahaztu izen ematerakoan, LABORALEko ordainagiriaren kopia eta honekin batera, GIZARTE SEGURANTZAKO TXARTELAREN fotokopia eramatea.**

Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko, inolako kasutan. Dokumentazio guztia batera aurkeztuko da, izen emate fitxa eta ordainketa agiria hain zuzen ere.

Udalekuetan izena ematerakoan adierazi beharko da haurrek inolako alergiairik ote duten, botikarik hartzen ari ote diren edota laguntza berezirik behar duten. Baita, autobusa erabili behar badute ere, zein autobus geltokia erabiliko duten bai joaterakoan bai bueltatzerakoan.

Informazio gehiago, **Gazte Informazio Bulegoan** eta www.gazteoiartzun.net webgunean.

Gazte Informazio Bulegoko ordutegia:

Astelehenetik-Ostiralera: 17:30-19:30 ----- Larunbata: 10:30-13:30

Harremanetarako:

Telefonoa: 943 49 11 05

Posta elektronikoa: gazteinfo@oiartzun.org